

Liburutegiaren Nazioarteko Eguna ospatuko dute Busturian

Ipuin kontalari saioak, liburu markatzaileen erakusketa eta gurasoentzako txokoa antolatu dituzte.

O. Zaballondo

Liburutegiaren Nazioarteko Eguna ospatuko dute bihar Busturiko Altamira auzoko liburutegian. Horren harira, hainbat izango dira egunean zehar izango diren ekitaldiak.

Haur liburuaren egunean egin bezala, umeentzako ipuin kontalari bat hurbilduko da Busturiko liburutegira. Jose Maria Uzelai herri ikastetxeko umeek izango dira ipuin saioetako ikusleak. Bi saio izango dira; batetik, 10:30ean, hiru eta zazpi urte bitarteko umeentzako saioa izango da. Bestetik, 11:30ean, zortzi eta hamaika urte bitartekoak hurbilduko dira liburutegira.

Bestalde, azken egunotan eskolan eskulanetara ematen dituzten orduetak liburu markatzaileak egin dituzte umeek. Horiek guztiak liburutegian izango dira ikusgai barikuan bertan.

Gurasoentzako txokoa

Gurasoentzako txoko bat ere antolatuko dute. Horretan, seme-alaben hezkuntzari buruz aholkua emango dieten liburuak eta aldizkariak aurkitu ahal izango dituzte.

Liburutegira hurbiltzen direnek liburu bana jasoko dute.